

Promozioa irakasle-ikertzaile bakoitzak duen eskubidea da

Irakasle eta ikertzaileen Errektoreordeak, maiatzaren 30eko Negoziazio Mahaian aurkeztu zuen IRlen promoziorako proposamena, hots, katedra, oso eta ikerkuntza-irakasle plazak sortzeko prozedurari dagozkion irizpideak. Era berean, ekarpenak bidaltzeko data bat adostu zen bilera horretan. LABeko afiliazioaren artean barne-eztabaida bat izan ondoren, adostutako [**proposamen bat**](#) bidali zen.

Datorren ekainaren 26an deituta gaude gai honen inguruan sindikatuok aurkeztutako proposamenak lantzeko errektoreordearekin.

Promozioa irakasle-ikertzaile bakoitzak duen eskubidea da. Zentzu horretan, promoziorako irizpide gardenak, objektiboak eta zuzenak definitzea oso garrantzitsutzat jotzen dugu.